

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zure ingurua aprobeztatuta.

- ✓ Jakina, aukera ezin hobea da auzoko tabernako edo jatetxeko zerbitzari euskaldun horri **poteak edo menuak euskaraz eskatzen hasteko**. Animatuz gero, kontatu ikaskideei nola moldatu eta sentitu zaren, erraza izan den, zailtasunik izan ote duzun...
- ✓ Inguruan duzun tabernari edota sukaldari horren laguntzaz, beste jarduera bat ere egin dezakezu gaiari sakontzeko. **Haien lanari lotutako galdera-sorta bat prestatu eta langile hori elkarrizketatu ahal duzu**: noiz zabaldu zuen negozioa, zein diren lanaren alde onak eta txarrak, eguneroko lan-errutinak zein diren, pasadizoren bat... Behin elkarrizketa eginda, ikaskideei laburbildu jasotako informazio interesgarrienak edota daturik esanguratsuenak.
- ✓ Ziur gaude esperientzia on nahiz txar bat baino gehiago izan dituzula jatetxeak eta tabernak direla-eta. Bada, aprobezta dezagun esperientzia horien inguruan hitz egiteko. Ordenatu zure ideiak eskema baten bitartez eta **kontatu ikaskideei tabernei eta jatetxeei lotutako esperientziaren bat**: non gertatu zen, noiz, norekin zeunden, zer gertatu zen... Ziur oso tarte dibertigarria pasatuko duzuela!
- ✓ Sar zaitez [www.gasteizkomintzalaguna.eus](http://www.gasteizkomintzalaguna.eus) izeneko webgunean eta kontsultatu Gasteizko taberna euskaldunen sarea. Ba al da tabernarik zure auzoan? Bestela, badakizu taberna horietan aurkituko dituzula zerbitzua euskaraz emateko prest dauden langileak.

### Gasteizko parrandaren inguruko liburuak

- ✓ Jon Arretxe idazle basauriarrak badu Gasteizko taberna eta parrandari eskainitako libururen bat edo beste. Animatu, **irakurri Ostegunak** izeneko eta, amaitzen duzunean, **komentatu ikaskideei zer iruditu zaizun**. Hona hemen aipatutako liburu horren azala eta laburpena.


#### OSTEGUNAK

Jon Arretxe

Elkar, 1997

IPUIN LIBURUA

Euskal literatura serioa iruditzen zaizula? Ez zarela inoiz dibertitzen liburu bat irakurtzen? Orduan, ez duzu *Ostegunak* ezagutzen. Jon Arretxeren lan hau umorearen, "desmadrearen", ondo pasatze axolagabearen apologia hutsa duzu, alde guztietatik.



### Internet aprobeztatuta

- ✓ Badira euskarazko webguneak dituzten jatetxeak; *The Bost* eta *El Matxete*, esate baterako. **Sar zaitez webgune horietan, kuxkuxean ibili, eta eman ikaskideei lortutako informazioaren berri**: non dauden, zer-nolakako menua duten, prezioa... **Erreparatu bereziki kartei eta, horien barruan, errezetak izendatzeko moduei**. Nola esaten da *carrilleras* euskaraz? Eta *costillas*? Ziur gaude hitz berri bat edo beste ikasteko aukera izango duzula! Hitz horiek guztiak apuntatu eta ikaskideei azaldu. Txapelketa bat ere egin ahal duzue, ea nork hitz gehien asmatu!